

Markel Olano Arrese
Xabier Barandiaran Irastorza

Komunitatea berregiteko baldintzei buruz

60ko hamarkadan Euskal Herrian burutuko den berpizkunde eta modernizazio prozesuan, 56ko belaunaldiak euskal kultura garai berrietara egokitzeko talde esfortzu garrantzitsua egingo du; berrikuntza, kultur adierazpen ezberdinetan: literaturan, artean, kantagintzan, hezkuntzan, ekonomian, alor sozialean eta herrigintzako eremu hainbatetan. Berrikuntza horren erdigunean euskara dago; ez soilik hizkuntz berrikuntzaren ikuspegitik (euskara batuaren sorreraren garrantzia ukaezina den arren), baizik eta hizkuntza kultur sistema baten erakundetze formarik garaiena bezala ulertuta. Joxe Azurmendik gustukoa zuen Orixe irakurtzea, baina Orixeren mundua gaunditzeko premiaz hitz egingo du Euskal Herriaren biziraupena ziurtatu ahal izateko. Euskara ez da, beraz, soilik komunikaziorako tresna bat, baizik eta kultur komunitate baten izaera egituratzen duen oinarri sakona. Hizkuntzaren bidez gorpuzten dira talde baten izateko, sentitzeko eta jokatzeko moldeak, eta, horren bitartez, nortasun kolektiboak, komunitateak, eraikitzen dira. Azurmendik garrantzi berezia emango dio euskara ezagutza sortzeko gune aurreratuetara (bereziki unibertsitate) eramateari. Hizkuntza hautu bat da, Azurmendik gizagintzaren bidetik garatu nahi duen hautua.

Azurmendiren pentsamenduak euskal nazio kulturala erdigunean jarriko du, eta kritiko dihardu nazio kultural horren garapen historiakoaz (ez bakarrik kanpotik etorritako erasoez, baita geure utzikeriaz ere); kultura, beti, askotarikoa dela aitortuz (balioetan, ikusmoldeetan), baina hizkuntzak ezartzen duen markoari uko egin gabe; hizkuntzaren markoan garatzen da herritartasuna (solidaritate modu bat). Nazio kulturala, beraz, ezaugarri objektiboen bidez identifikadaiteke (hizkuntza, ohiturak, errituak...), baina baita subjektibotasunetik sortzen diren identifikazioen bidez ere. Hizkuntza kolektiboki partekatu eta bizi ez denean ere, nazio kulturalarekin identifikatze-

ko aukera badago, eta horrela gertatzen da askotan; nazio kulturalak bere herri kontzientzia hartzen duenean, nazio politiko bilakatzen da. Azurmendik aurre egingo die nazioa modernitatearen eskutik sortutako kontzeptua dela defendatzen dutenei, nazioaren kontzeptu historikoa aldarrikatuz. Modernitatean estatuak nazioa bereganatu eta instrumentalizatu izanarekin kritiko agertuko da, eta ez du onartuko nazioak iraultza burgesaren produktu bat direnik. Sendo egingo die aurre Espainiako Estatutik nahiz Euskal Herritik euskal naziogintzari esentzialista eta baztertzailer izatearen argudiopean eginiko erasoei.

Azurmendi oso kontziente da egitura politikoei (estatuak edo estatu egiturek) duten balioaz herri garapenerako, baina subjektua herrian, komunitatean ezartzen du. Ihes egin nahi du politikaren absolutizaziotik. Arizmendiarrietaren pentsamendua lantzen duenean, Azurmendik inoiz baino argiago adieraziko du nor bere buruaren jabe izatea ezin daitekeela estatugintzarekin linealki nahastu; komunitateak bere buruaren baitan egin ditzakeenak egin egin behar ditu; baina komunitateak ezin du bere burua hustu herrigintza guztiaren ardura egitura politikoan kokatuz. Euskal herrigintza sendo bat gizarte zibil sendo baten eskutik etorriko da. Akats handia da, beraz, izaera publikoa eta estatalizazioa nahastea. Horrek ez du esan nahi Azurmendik herri estrategian politikaren eta herri erakundeen garrantziari uko egiten dionik.

Euskal Herrian, garapen teknologikoaren eta globalizazio eredu honen ondorioz, inoizko gizarte eraldaketarik handienak burutzen ari dira; Azurmendiren komunitatea inoiz baino apurtuago ageri da, gizabanakotzea tarteko; Espainiako sistema politikoaren joera zentralizatzaileak aurrera dihardu eta euskal herrigintzan komunitate politikoa indartzeko ahaleginean noraeza eta adostasun falta inoiz baino agerikoagoak dira. Azurmendik bide bat eskaintzen du, ordea: indartu euskara, indartu komunitatea eta egokitu garai berrietara. Eta horrek ezinbesteko egiten ditu bi gauza: alde batetik, herritarren eta herri erakundeen arteko lankidetzan oinarrituriko gobernantza, eta, bestetik, euskal alderdi abertzaleen arteko oinarritzko adostasunak herri komunitatea ardazteko estrategia nagusietan.